# Bestelako Xedapenak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA KULTURA SAILA

### Zk-3036

100/2003 DEKRETUA, maiatzaren 6koa, Eitbnet, S.A. sozietate publikoa sortu eta berorretan parte hartzeko Euskal Irrati Telebistari baimena ematen diona.

Euskal Irrati Telebista (EITB) zuzenbide pribatuko erakunde publikoa maiatzaren 20ko 5/1982 Legez sortu zen. Irrati hedapenaren eta telebistaren alorretako zerbitzuen titularra zenaren aldetik Euskal Autonomia Erkidegoari zegozkion eginkizun horietaz baliatzea zen bere helburua. Eginkizunok, hain zuzen ere, horretarako sortuta dituen sozietate publikoen bidez betetzen ditu EITBk, sortze legeko 37. artikuluan agindutako moduan.

Hedabideak, egunean-egunean gertatzen diren aurrerapen teknologikoen eraginez, zeharo ari dira aldatzen, batik bat hedabide publikoak. Ohiz irratiarenak eta telebistarenak izan diren zereginak zabaltzea dakar horrek, aukera emanez EITBri premia berriei egokitzeko behar dituen baliabideak bereganatzeko. Alde batetik, herritarrei eskainitako zerbitzu publikoak hobetu egingo lirateke; eta, bestetik, euskal sektore publikoa egoera teknologiko berriari atxikitzea lortuko litzateke.

Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzak eta EITBk kontratu programa bat izenpetu zuten 2002ko azaroaren 5ean; berorren helburuak: erakunde horrek euskal gizarteari eskaintzen dion zerbitzu publikoa zehaztea eta finantza-bideak jartzea. Agiri horretan honako egiteko hauek izendatzen zitzaizkion EITBri: multimediako euskarri berrietako edukien eta komunikazio zerbitzuen garapenean lagundu eta parte hartzea, euskal administrazio publikoak herritarrengana hurbiltzea komunikazioko multimedia euskarri berrien bidez eta euskarri berri horietan komunikazioko edukiak eta zerbitzuak garatzea euskal administrazioentzat. Sozietate berria sortzea ere aurreikusi zen helburu horiek lortzeko.

Horiek horrela, sozietate egitura bat sortzea erabaki da. Izendatu zaion jarduera EITBren barruan era eraginkorragoan kudeatzea bideratuko luke egiturak, gaur egun Euskal Irrati Telebistaren barruan —Taldeko beste sozietate batzuk kudeatuta— dauden jardunbideetatik bereiztuta. Entearen bidez egiten denez lo-

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE CULTURA

### N°-3036

DECRETO 100/2003, de 6 de mayo, de autorización al Ente Público Euskal Irrati Telebista para la creación y toma de participación en la Sociedad Pública Eitbnet, S.A.

El Ente Público de derecho privado Radio Televisión Vasca / Euskal Irrati Telebista (EITB), fue creado por Ley 5/1982, de 20 de mayo, para el ejercicio de las funciones que corresponden a la Comunidad Autónoma del País Vasco como titular de los servicios de radio difusión y televisión. Tales cometidos, conforme a los propios mandatos de la Ley de creación (artículo 37), los presta a través de las sociedades públicas que tiene creadas al efecto.

La profunda transformación que viene experimentando el mundo de las comunicaciones en general y de los medios de comunicación pública en particular, como consecuencia de los avances tecnológicos aplicados en este ámbito, llevan a la necesidad de ampliar la perspectiva de los cometidos tradicionalmente vinculados al servicio de radio y televisión posibilitando a EITB disponer de las herramientas indispensables para adecuarse a tales nuevas necesidades, permitiendo, de una parte, una mejora de los servicios públicos prestados a la ciudadanía y, de otra, garantizar la presencia del sector público vasco en el nuevo marco tecnológico.

En previsión de tal línea, el pasado 5 de noviembre de 2002, el Gobierno Vasco e EITB suscribieron un Contrato programa, dirigido a delimitar el ámbito del servicio público satisfecho por este Ente a la Sociedad Vasca e instrumentar su marco de financiación. Entre los cometidos previstos en dicho documento se asignaba a EITB los de » contribuir y participar en el desarrollo de contenidos y servicios de comunicación en los nuevos soportes multimedia» de » contribuir y participar en el acercamiento de las Administraciones Públicas vascas a los ciudadanos a través de los nuevos soportes multimedia de comunicación» y de » desarrollar contenidos y servicios de comunicación en los nuevos soportes para las Administraciones vascas», previéndose incluso la creación de una nueva Sociedad a tal efecto.

Habida cuenta de tales circunstancias, se ha optado por la creación de una estructura societaria que, dentro de EITB permita una más eficaz gestión de la actividad encomendada, separada de las otras líneas específicas actualmente existentes en el propio Ente Público Euskal Irrati Telebista, gestionadas por las otras Socie-

tura, orain arte eskuratutako eskarmentuaz eta ezaguerez baliatuko da, izendatu zaizkion eginkizun publikoak hobeto eta era koordinatuagoan gauzatzeko aukera emanez.

Sozietatearen ezaugarriak: 1) Euskadi Informazioaren gizartean txertatzeari dagokionez EITBk kontratu-programan bereganatu dituen konpromisoak betetzea da sozietatearen helburua; 2) alor horretan zentro teknologikoei lankidetza eskaintzeko bokazioa; 3) euskal ikus-entzunezkoen sektorea garatzeko konpromisoa, proiektu enpresarialetan parte hartuz; 4) erregimen ekonomikoa zehatza Taldearen barruan, izan ere, bere jarduera garatzearen ondoriozko diru-sarrera propioak dira finantza-bide bakarra.

Proiektu berria formulatzea ekarri du aukera horrek, zein, Sortze Legearen 41. artikuluaren arabera, Euskal Irrati Telebista erakunde publikoko zuzendari nagusiak proposatu baitu, enteak 2003ko apirilaren 29an egindako Administrazio Kontseiluarekin bat etorriz. Halaber, Euskal Autonomia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta erakunde publikoaren artean 2002ko azaroaren 5ean izenpetutako kontratu-programan aurreikusitakoaren arabera, Jarraipen Batzordeak aldeko iritzia eman du.

Kontuan izanik Euskal Irrati Telebista eta berorren sozietate publikoak Lehendakariaren uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuaren 13.2 artikuluaren eraginez Kultura Sailari atxikita daudela; Euskadiko Ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legeko 44.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera; Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Kultura sailburuaren proposamenez; eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko maiatzaren 6an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren;

XEDATU DUT

*1. artikulua.*– Sozietate publiko filial bat sortzeko baimena ematen zaio Euskal Irrati Telebistari. Akziokako sozietatea izango da, baina bazkide bakarra erakunde publikoa bera izango da, izenez Eitbnet, S.A. izango duena.

*2. artikulua.*– Helburuak.

Informazio gizarterako diren edukiak ekoiztu, erreproduzitu, argitaratu, erosi, saldu, merkatuan ustiatu eta banatzea, batez ere interraktiboak, multimedia eta komunikazio eta zerbitzuetarako euskarri berriak sarean.

Komunikazio eta zerbitzuetarako kanalak abian jartzea euskarri berri horietan eta horiek mantentzea. Telebista digitala, teletestua, interneta, telefonia mugikorra eta bihar-etzi garapen teknologikoren ondorioz ager daitezenak dira euskarriok.

dades del Grupo. En todo caso, el nexo a través del Ente permitirá aprovechar la experiencia y conocimientos adquiridos por aquéllas revirtiendo en la mejor y más coordinada satisfacción de los cometidos públicos asignados.

Esta sociedad se caracteriza en el Ente por: 1) un objeto social orientado al cumplimiento de los compromisos que EITB ha asumido en el contrato – programa en relación con la incorporación de Euskadi a la sociedad de la información; 2) una vocación de colaboración con los centros tecnológicos en este ámbito); 3) un compromiso con el desarrollo del sector audiovisual vasco mediante la participación en proyectos empresariales; 4) un régimen económico específico dentro del Grupo en la medida que su única fuente de financiación son los ingresos propios por el desarrollo de su actividad.

Tal opción ha llevado a la formulación del correspondiente Proyecto que, conforme al artículo 41 de la Ley de Creación ha sido propuesto por el Director General del Ente Público «Radio Televisión Vasca - Euskal Irrati Telebista», de acuerdo con el Consejo de Administración del propio Ente en su sesión celebrada el 29 de abril de 2003. Igualmente, de acuerdo con lo previsto en el Contrato-Programa suscrito el 5 de noviembre de 2002 entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Ente Público la Comisión de Seguimiento del mismo ha mostrado su parecer favorable.

En su virtud, habida cuenta que por Decreto 7/2001, de 16 de julio, del Lehendakari, el Ente Público «Radio Televisión Vasca / Euskal Irrati Telebista» y sus Sociedades Públicas se hallan adscritas al Departamento de Cultura (artículo 13.2), conforme a lo previsto en el artículo 44.2 de la Ley 14/1983, de 27de julio, de Patrimonio de Euskadi, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública y de la Consejera de Cultura, y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 6 de mayo de 2003,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Se autoriza al Ente Público «Radio Televisión Vasca / Euskal Irrati Telebista», la creación de una sociedad pública filial, con forma de sociedad anónima, cuyo único socio será el citado Ente Público, que tendrá la denominación de Eitbnet, S.A.

*Artículo 2.*– El objeto de la sociedad será:

La producción reproducción, publicación, compra, venta explotación comercial y distribución de contenidos para la sociedad de la información y especialmente los interactivos, multimedia y en red para los nuevos soportes de comunicación y servicio.

La puesta en marcha y mantenimiento de canales de comunicación y de servicio en estos nuevos soportes representados hoy por la televisión digital, teletexto, internet, y telefonía móvil y en un futuro por los que el desarrollo tecnológico haga posible.

Zentro teknologikoak lankide izatea alor honetako eraberrikuntza proiektuetan.

Izaera estrategikoa duten proiektu enpresarialetan eta aliantzetan parte hartzea, beti ere ikus-entzunezkoen euskal sektorea garatzea eta sektorea beste merkatu batzuetara irekitzea badakarte.

*3. artikulua*.– Sozietatearen sorrera kapitala hirurogeita bost mila (65.000 euros) eurokoa da. Sei mila eta bostehun akziok ordezkatuko dute kapital hori, bakoitzaren balio izendatua hamar (10 euros) eurokoa izanik. Euskal Irrati Telebista erakunde publikoak harpidetu eta ordainduko du oso-osorik.

*4. artikulua*.– Sorrera legean ezarritako moduan erabiliko dira Euskal Irrati Telebistari dagozkion bazkide eskubideak.

*5. artikulua*.– Euskal Irrati Telebista erakunde publikoko zuzendari nagusiari baimena ematen zaio sozietatearen sorrerako eskritura publikoa emateko ekintzan agertzeko, sozietatearen estatutuak onartzeko, administratzaile bakarra izendatzeko, harpidetzarako behar diren ordainketak eta ekarpenak gauzatzeko, akzioen zenbatekoa estaltzeko eta sozietatea sortzeko behar diren agiri publikoak eta pribatuak emateko.

AZKEN XEDAPENA

Onartzen denetik aurrera izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko maiatzaren 6an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Kultura sailburua,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

ESTATUTUAK

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua*.– Izena.

Eitbnet, S.A. izango da estatutu hauekin arautuko den akziokako sozietatearen izena.

*2. artikulua*.– Helburua.

Sozietatearen helburuak:

1) Informazio gizarterako diren edukiak ekoiztu, erreproduzitu, argitaratu, erosi, saldu, merkatuan ustiatu eta banatu, batez ere interraktiboak, multimedia eta komunikazio eta zerbitzuetarako euskarri berriak sarean.

La colaboración con centros tecnológicos en proyectos de innovación en este mismo ámbito.

La participación en proyectos empresariales y en alianzas de carácter estratégico que contribuyan al desarrollo del sector audiovisual vasco y a la apertura del sector hacia otros mercados.

*Artículo 3*.– El capital social fundacional será de sesenta y cinco mil quinientos euros (65.000 euros), representado por seis mil quinientas (6.500) acciones de diez euros (10 euros) de valor nominal cada una, que será suscrito y desembolsado íntegramente por el Ente Público «Radio Televisión Vasca / Euskal Irrati Telebista».

*Artículo 4*.– Los derechos de socio correspondientes al Ente Público «Radio Televisión Vasca / Euskal Irrati Telebista» serán ejercidos conforme establece su Ley de creación.

*Artículo 5*.– Se autoriza al Director General del Ente Público Euskal Irrati Telebista para concurrir al acto de otorgamiento de la escritura pública de constitución de la sociedad, aprobación de los estatutos sociales y formalización de la designación del Administrador único, así como para materializar los desembolsos y aportaciones necesarias para la suscripción y cobertura del importe de las acciones y para la extensión de cuantos documentos públicos y privados sean precisos para la constitución de la sociedad.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos desde su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 6 de mayo de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

La Consejera de Cultura,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

ESTATUTOS

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.º* – Denominación.

La Sociedad anónima que se rige por los presentes Estatutos se denominará Eitbnet, S.A.

*Artículo 2.º* – Objeto.

La Sociedad tiene por objeto:

1) La producción, reproducción, publicación, compra, venta, explotación comercial y distribución de contenidos para la sociedad de la información y especialmente los interactivos, multimedia y en red para los nuevos soportes de comunicación y servicio.

2) Komunikazio eta zerbitzuetarako kanalak abian jarri euskarri berri horietan, eta horiek mantentzea. Telebista digitala, teletestua, interneta, telefonia mugikorra eta bihar-etzi garapen teknologikoren ondorioz ager daitezenak dira euskarriok.

3) Zentro teknologikoekin batera lan egin alor honetako eraberriketa proiektuetan.

4) Izaera estrategikoa duten proiektu enpresarialetan eta aliantzetan parte hartu, beti ere ikus-entzunezkoen euskal sektorea garatzea eta sektorea beste merkatu batzuetara irekitzea badakarte.

Sozietate honek betetzen ez dituen baldintza bereziak eskatzen baditu legeak, orduan era horretako jarduerak ez dira sozietate honen helburu izango.

*3. artikulua.*– Iraupena.

Sozietateak ez du iraupen zehatzik izango, eta sorrera eskritura ematen denean hasiko ditu bere jarduerak.

*4. artikulua.*– Abenduaren 31n itxiko da, urtero, sozietatearen ekitaldia.

*5. artikulua.*– Egoitza.

Sozietatearen helbidea: Gaztañatza auzoa, z/g, 48215 Iurreta. Hor izango du legezko ordezkaritza sozietateak.

Helbidez aldatzeko erabakia har dezake administrazio organoak, betiere udal mugarte berean gertatzen bada. Organo horrek erabaki dezake, halaber, sukurtsalak, agentziak, delegazioak, ordezkaritzak eta dependentziak sortzea, kentzea edo lekuz aldatzea lurralde nazionalean edo hortik kanpo.

*6. artikulua.*– Kapitala.–

Hirurogeita bost mila eurokoa (65.000 euros) da sozietatearen sorrera kapitala, 6.500 akzioz ordezkatuta, bakoitzaren balio izendatua hamar euro (10 euros) izanik. Akzioak izendunak izango dira, eta sozietatearen kapitala Euskal Irrati Telebista erakunde publikoak harpidetu eta ordainduko du oso-osorik.

II. KAPITULUA

*7. artikulua.*– Sozietatearen organoak.

Honako hauek agindu eta administratuko dute sozietatea:

– Bazkideen batzar orokorra.

– Administratzaile bakarra, Euskal Irrati Telebista erakunde publikoko zuzendari nagusiak bere kasara izendatuta eta aukeratuta.

*8. artikulua.*– Batzar Orokorra.

Euskal Irrati Telebista erakunde publikoko zuzendari nagusiak ordezkatuko du batzar orokorra. Urtero egingo da ekitaldi bakoitzeko lehenengo sei hileen barruan. Bere eginkizunak: sozietatearen kudeaketa arbuiatzea; hala behar izanez gero, aurreko ekitaldiko

2) La puesta en marcha y mantenimiento de canales de comunicación y de servicio en estos nuevos soportes representados hoy por la televisión digital, teletexto, internet, y telefonía móvil y en un futuro por los que el desarrollo tecnológico haga posible.

3) La colaboración con centros tecnológicos en proyectos de innovación en este mismo ámbito.

4) La participación en proyectos empresariales y en alianzas de carácter estratégico que contribuyan al desarrollo del sector audiovisual vasco y a la apertura del sector hacia otros mercados.

Quedan excluidas del objeto social todas aquellas actividades para cuyo ejercicio la Ley exija requisitos especiales que no queden cumplidos por esta Sociedad.

*Artículo 3.º* – Duración.

La duración de la Sociedad será indefinida y dará comienzo a sus actividades el día del otorgamiento de la escritura fundacional.

*Artículo 4.º* – La fecha de cierre del ejercicio social será el día 31 de diciembre de cada año.

*Artículo 5.º* – Domicilio.

El domicilio de la Sociedad se establece en Iurreta, B.º Gaztañatza s/n 48215, donde radicará la representación legal de la Sociedad.

El órgano de administración podrá acordar el cambio de domicilio que consista en su traslado dentro del mismo término municipal, así como la creación, supresión o traslado de sucursales, agencias, delegaciones, representaciones y dependencias, tanto en territorio nacional como fuera de él.

*Artículo 6.º* – Capital.

El capital social fundacional es de 65.000 euros (sesenta y cinco mil euros), representado por 6.500 acciones de 10 euros (diez euros) de valor nominal cada una. Las acciones serán nominativas y el capital fundacional será suscrito y desembolsado íntegramente por el Ente Público Euskal Irrati Telebista.

CAPÍTULO II

*Artículo 7.º* – Órganos sociales.

La sociedad estará regida y administrada por:

– la Junta General de socios.

– un Administrador único nombrado y separado libremente por el Director General del Ente Público Euskal Irrati Telebista.

*Artículo 8.º* – Junta General.

La Junta General estará representada por el Director General del Ente Público Euskal Irrati Telebista. Deberá celebrarse, al menos, una vez al año, dentro de los seis primeros meses de cada ejercicio, para censurar la gestión social, aprobar, en su caso las cuentas del ejer-

kontuak onartzea; eta emaitzaren aplikazioaren gaineko erabakiak hartzea.

Administratzaileak, bestalde, bidezkotzat iritzitako guztietan egingo du deia batzar orokorrerako; eta, halaber, sozietateko kapitalaren ehuneko bosta behintzat ordezka dezaten bazkideek eskatzen dutenean. Eskabidean beti azaldu beharko dira aztertu nahi diren gaiak.

*9. artikulua.*– Administratzaile bakarra.

Administratzaile bakar bati emango dio, batzar orokorrak, sozietatearen administrazioa, Eitbnet-eko zuzendariari hain zuzen ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan eginkizun publikoetan aritzeak dakartzan bateraezintasunei buruzkoa abenduaren 20ko 32/1983 Legean jasotako bateraezintasunek eragingo diote administratzaile bakarrari. Otsailaren 23ko 129/1999 Dekretuan eta otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuan agindutakoa ere bete beharko du; eta, halaber, Euskal Irrati Telebista erakunde publikoarekin duen loturaren ondorioz dagozkionak.

*10. artikulua.*– Eskumen orokorrak.

Sozietateko zuzendaria ere baden administratzaile bakarrak honako eskumen eta ahalmen hauek izango ditu:

*11. artikulua.*– Eginkizunak.

Administratzailearen eginkizunak:

1.– Sozietatearen negozioez arduratu.

2.– Sozietatea administratu.

3.– Sozietatearen ordezkari lez jardun epaiketetan eta horietatik kanpo.

Eginkizunok betetzerakoan ahalmenik eta zabalenak izango ditu eskuratuta sozietatearen kudeaketan eta administrazioan. Prestasun osoa izango du sozietatearen helburuak jasotako ekintza eta kontratuetan aritzeko. Bestalde, ahaldunak eta gerenteak izendatzeko ahalmena ere izango du, horiengan utziz ordezkagarriak diren ahalmen oro.

Azaletik baino ez bada ere, honako ahalmen hauek ere —eta ezelango muga barik horiekin lotutako guztia— badagozkio administratzaileari:

a) Erakunde ofizial edo pribatuekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin hitzarmenak sinatu.

b) Sozietatearen aurrekontu aurreproiektua gertatu eta Euskal Irrati Telebista erakunde publikoko zuzendari nagusiari bidali. Nahitaez aplikatzekoak diren arauen eraginez dituzte asignatuta, aurrekontuok, Euskal Autonomia Erkidegoko sozietate publikoek.

c) Sozietatearen kontratazio organo legetxe jardun; eta zehatz mehatz, era guztietako ekintza, kontratu edo negozio juridiko egitea, beharrezkotzat jotzen dituzten hitzarmen, klausula eta baldintzak ezarriz horretarako.

cicio anterior, y resolver sobre la aplicación del resultado.

El administrador convocará asimismo la Junta General siempre que lo considere necesario o conveniente y, en todo caso, cuando lo soliciten uno o varios socios que representen, al menos, el cinco por ciento del capital social, expresando en la solicitud los asuntos a tratar en la Junta.

*Artículo 9.º* – Administrador Único.

La Junta General confiará la Administración de la Sociedad a un Administrador único, que lo será el Director de Eitbnet.

El cargo de administrador único está sometido a las incompatibilidades previstas al efecto en la Ley 32/1983 de 20 de diciembre, de incompatibilidades por el ejercicio de funciones públicas en la Comunidad Autónoma del País Vasco así como a los Decretos 129/1999 de 23 de febrero y 130/1999 de 23 de febrero y a aquellas que procedan por razón de su vinculación al Ente Público Euskal Irrati Telebista - Radio Televisión Vasca.

*Artículo 10.º* – Competencias generales.

El administrador único, como Director de la Sociedad, tendrá las siguientes competencias y facultades:

*Artículo 11.º* – Funciones.

Serán funciones del Administrador:

1.– Dirigir los negocios sociales.

2.– Administrar la Sociedad.

3.– Representarla en juicio y fuera de él.

Para el desempeño de estas funciones tendrá las más amplias facultades de gestión, administración y disposición, para toda clase de actos y contratos comprendidos en el objeto social, incluyendo la potestad de nombrar gerentes o apoderados, confiriéndoles todas sus facultades delegables.

A modo meramente enunciativo, corresponden al Administrador las siguientes facultades y todo cuanto con ellas esté relacionado, ampliamente y sin limitación alguna:

a) Establecer convenios de colaboración con Organismos oficiales o privados, así como con la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

b) Elaborar el anteproyecto de presupuestos de la Sociedad, asignados por los preceptos de obligada aplicación a las Sociedades Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, para su posterior envío al Director General del Ente Público Euskal Irrati Telebista.

c) Actuar como órgano de contratación de la Sociedad y en concreto, otorgar toda clase de actos, contratos, o negocios jurídicos, con los pactos, cláusulas y condiciones que estimen oportuno establecer; transigir y

Bitartekaritzak berbatu eta hitzartu. Lehiaketa eta enkanteetan parte hartu. Esleipenetarako proposamenak egin eta hitzartu. Edozein eratako tituluak erosi, kargatu eta besterendu. Akzio, partaidetza, obligazio edo beste balore tituluen gaineko eragiketak gauzatu. Beste sozietate batzuetan parte hartzea dakarten ekintzak gauzatu, beroien sorrera eraginez, kapital gehikuntzekin akzioak eta partaidetzak harpidetuz edo balore tituluen jaulkipenak eginez.

Kanbio letrak eta beste igorpen agiri batzuk igorri, onartu, endosatu, interbenitu eta protestatu.

e) Mailegutan edo kreditutan dirua hartu; eta zorrak zein kredituak aitortu.

f)Kreditu eta aurrezki entitateetako, banketxeetako (Espainiakoa barne) eta institutu edo erakunde ofizialetako kontuak eta beste gordailu batzuk eduki, jarraitu, ireki eta itxi, legeek eta bankuen ohiko jardunak aintzat hartuz horretarako.

g) Epaitegietan eta Auzitegietan —berdin diola horien jurisdikzioa— azaldu eta, halaber, edozein eratako erakunde publikoetan, edozein gai, epaiketa edo prozedura dela-eta. Errekurtsoak aurkeztu, baita kasaziokoa, berrikuskatzekoa eta deuseztatzekoa ere. Idazkiak sendetsi eta jardueretan atzera egin, bai zuzenean edo, bestela, abokatuaren edo prokuradorearen bidez, horien esku jarriko baitira behar dituzten ahalordeak.

h) Eitbnet-eko zuzendaritza pertsonala izendatzeko edo kentzeko proposamena egin Euskal Irrati Telebistako zuzendari nagusiari. Pertsonal horren eskumenak eta betebeharrekoak —baita zerbitzuek dituzten zereginak ere— ezarri. Programazioaren arduraduna denaren aldetik, bidezkotzat jotako agindu eta instrukzioak eman ditzake —betiere Euskal Irrati Telebista erakunde publikoko zuzendari nagusiak gainbegiratuta— programetako edukiak Euskal Irrati Telebistako Administrazio Kontseiluak onartutako oinarrizko irizpide eta jarraibideei egokitzeko.

i) Pertsonala izendatu, eta horien buru izan.

j) Onartutako aurrekontuen arabera erabili sozietatearen fondoak; fondook erreklamatu, eskuratu eta kobratu behar den moduan, eta sozietatearen interesak aintzat hartuz. Gordailuak sortu; kredituko eta beste era batzuetako banku kontuak ezarri; eta entitate bereziekin edo atzerrikoekin —banka ofiziala barne— banku eragiketak gauzatu. Sozietatearenak izan eta korrespontsalen eskuetan dauden fondoak erabili. Kanbio letrak eta merkataritzako efektuak igorri, endosatu, abalatu, onartu, ordaindu edo negoziatu. Hau da: beren-beregi bankuen eta merkataritzaren alorretakoak diren eragiketa guztiak, horretarako ezar daitezen eragozpenak baino ez dituztela izango.

pactar arbitrajes, tomar parte en concursos y subastas, hacer propuestas y pactar adjudicaciones, adquirir, gravar y enajenar por cualquier título y, en general, realizar cualesquiera operaciones sobre acciones, participaciones, obligaciones u otros títulos valores, así como realizar actos de los que resulte la participación en otras sociedades, bien concurriendo a su constitución o suscribiendo acciones o participaciones en aumentos de capital u otras emisiones de títulos valores.

d) Girar, aceptar, endosar, intervenir y protestar letras de cambio y otros documentos de giro.

e)Tomar dinero a préstamo o crédito, reconocer deudas y créditos.

f) Disponer, seguir, abrir y cancelar cuentas y depósitos de cualquier tipo en cualquier clase de entidades de crédito y ahorro, bancos, incluso el de España y demás bancos, institutos y organismos oficiales, haciendo todo cuanto la legislación y la práctica bancaria permitan.

g) Comparecer ante toda clase de Juzgados y Tribunales de cualquier jurisdicción, y ante toda clase de organismos públicos, en cualquier concepto, y en toda clase de juicios y procedimientos; interponer recursos, incluso de casación, revisión, nulidad; ratificar escritos y desistir de las actuaciones, ya directamente o por medio de Abogado y Procurador, a los que podrán conferir los oportunos poderes.

h) Proponer al Director General del Ente Público «Euskal Irrati Telebista - Radio Televisión Vasca» el nombramiento y cese del personal directivo de Eitbnet; establecer las atribuciones y deberes de dicho personal, así como las competencias de los diferentes servicios, pudiendo dar las órdenes e instrucciones precisas, como responsable de la programación, bajo la supervisión del Director General del Ente Público «Euskal Irrati Telebista - Radio Televisión Vasca», para garantizar la adecuación de los contenidos de los programas a los principios básicos y líneas generales aprobados por el Consejo de Administración de «Euskal Irrati Telebista - Radio Televisión Vasca».

i) El nombramiento del personal, ostentando la Jefatura del mismo.

j) Disponer de conformidad con los presupuestos aprobados de los fondos sociales, reclamarlos, percibirlos y cobrarlos de donde proceda y a los intereses sociales que convenga; constituir depósitos, establecer cuentas bancarias de crédito y de otra índole, retirar metálica o valores en general, realizar toda clase de operaciones bancarias con entidades especiales o extranjeras, incluso la banca oficial; disponer de los fondos de la sociedad en poder de corresponsales; librar, endosar, avalar, aceptar, pagar o negociar letras de cambio y efectos de comercio; en suma, todas las operaciones propias del tráfico bancario y mercantil, con las limitaciones que al efecto se estipulen.

k) Sozietatearen helburua osatzen duten jardueren garapenari buruzko Urteko Txostena gertatu eta erakunde publikoko zuzendari nagusiari bidali, Administrazio Kontseiluak onar dezan.

l) Urteko kontuak eta EAEko Ogasun Orokorraren arauek sozietate horiei eskatzen dizkien agiriak urtero aurkeztu.

m) Sozietatearen aurrekontuaren kargurakoak diren gastuak onartu.

Eskumen hauekin ez da murrizten eginkizun exekutiboa, azaldu baino.

III. KAPITULUA
EREGIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

*12. artikulua.–* Araudia. Eitbnet sozietateak berenberegiko erregimen ekonomikoa eta finantzarioa du EITB taldearen barruan; izan ere, bere jarduera garatzetik lortzen ditu finantzaketarako diru-sarrerak. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko akziokako sozietate publikoa denez, horrelakoei aplikagarriak zaizkien arauei egokituko zaie; eta horien ezean, akziokako sozietateen legeari eta horren osagarri diren gainerako xedapenei.

*13. artikulua.–* Agiri ekonomikoak eta kontableak. Eitbnet sozietateari aplikagarriak zaizkion legeek hala behartuta erredaktatutako agiri ekonomiko eta finantzarioez gain, irabazien eta galeren kontu balantzea eta sozietatearen eragiketen azalpen txostena egiteko urte bakoitzeko abenduaren 31 hartuko da erreferentzia legetxe, betiere lau hileko epearen barruan gauzatu beharko dela, sozietatearen urteko ekitaldia ixten den egunetik kontatzen hasita.

*14. artikulua.–* Kontuen zentsura. Sozietatearen kontuen zentsuran eta kontrolean beren-beregi aplikagarriak diren arauak kontuan hartuz, entitateen edo espezialista independienteen bidez kontuok zentsuratzea erabaki dezake administrazio organoak.

*15. artikulua.–* Determinazioa. Zuzenbide pribatuko pertsonei aplikatzen zaizkien arau berak izango ditu sozietateak ere. Aintzat hartu beharko dira, dena dela, zenbait alorren ondorio diren espezialitateak, izan ere, alor horien ezaguera —kapitalean Euskal Autonomia Erkidegoak baino parte hartzen ez duelako— jurisdikzio bereziari egotzita dago legez, honako hauek batik bat: sozietatearen ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen izaeraren eta jarduera ekonomikoa eta kontablea fiskalizatzearen eta epaitzearen ondorio direnak.

k) Elaborar la Memoria Anual relativa al desarrollo de las actividades que constituyen el objeto social, elevándola al Director General del Ente Público, para su posterior aprobación por el Consejo de Administración.

l) Presentar anualmente a la Junta General las cuentas anuales y cuantos otros documentos sean exigidos a estas Sociedades por la normativa de la Hacienda General del País Vasco.

m) Aprobar gastos con cargo al Presupuesto de la Sociedad.

No siendo esta reseña de atribuciones limitativa, sino explicativa de la función ejecutiva.

CAPÍTULO III
RÉGIMEN ECONÓMICO Y FINANCIERO

*Artículo 12.º* – Normativa reguladora. La Sociedad Eitbnet, participa de un régimen económico y financiero específico dentro del Grupo EITB en la medida que su única fuente de financiación son los ingresos propios por el desarrollo de su actividad. No obstante, en su condición de Sociedad Anónima Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se ajustará a la normativa especial que le es aplicable, y en lo no previsto por ésta última a la Ley de Sociedades Anónimas y demás disposiciones que la complementan.

*Artículo 13.º* – Documentos económicos y contables. Además de los documentos económicos y contables cuya redacción sea obligada por la legislación especial aplicable a la Sociedad EITBNET, está formalizada con referencia al 31 de diciembre de cada año, y en el plazo de cuatro meses contados a partir del cierre del ejercicio social, el balance de cuentas de pérdidas y ganancias y la memoria explicativa de las operaciones sociales.

*Artículo 14.º* – Censura de cuentas. Sin perjuicio de la normativa especialmente aplicable en cuanto a la censura y control de las cuentas sociales, el órgano de administración podrá disponer la censura de aquéllas por medio de Entidades o especialistas independientes.

*Artículo 15.º* – Determinación. La Sociedad estará sometida a las mismas reglas de jurisdicción aplicables a las personas de derecho privado, sin perjuicio de las especialidades que procedan de aquellas cuestiones cuyo conocimiento venga legalmente atribuido a la jurisdicción especial por participar exclusivamente en su capital la Comunidad Autónoma del País Vasco y en particular, las que procedan en función de la naturaleza de los bienes y derechos que constituyan su patrimonio y de la fiscalización y enjuiciamiento de la actividad económica y contable.